23 ARABA

Baia ibaiko ur-jauziak

URAREN EUSKAL AGENTZIA | AGENCIA VASCA DEL AGUA

6 km

Ordu 1 eta 10 min

Udalerria:
Zuia
Hurbileko herria:
Sarria

Ibaia:
Baia

Ingurunea ez dago arriskuetatik kanpo

711 m
118 m
658 m
85 m

Ingurumen-garrantzia

Baia ibaiko ur-jauzien ibilbidea aparta da ibai-tarte horretaz gozatzeko, landare-estaldura oneko ingurua izanik. Bertan lizarrak, sahatsak eta haltzak nabarmentzen dira, ibai-ertzeko basoa osatuz, non eta espezie ezberdinetako hariztia nagusitzen den Gorbeiako Parke Naturaleko eremuan. Faunaren hainbat espeziek ibaia eta ibai korridorea habitat gisa darabilte. Igaraba *(Lutra lutra)* eta bisoi europarra *(Mustela lutreola)* bezalako espezieak nabarmendu behar dira. Arrain-espeziei dagokienez, amuarrain arrunta *(Salmo trutta)*, barbo arrunta *(Barbus graellsi)* eta loina *(Chondrostoma miegii)* nabarmentezen dira.





Baia ibaiko ur-jauziak

Non dagoen eta nola heldu

Baia ibaiko ur-jauzien ibilbidea erraza eta atsegina da. Arabako Lurralde Historikoko ipar-mendebaldean kokatzen den ibaiaren ibilguari jarraituko diogu, Zuiako udal barrutian eta Gorbeiako mendi-adarren eskualdearen barruan. Ibilbidea hasteko gertuen dagoen herria Sarria da. Bertara Murgiatik joan gaitezke A-4414 errepidea hartuz.

Sarria herritik Gorbeiako Parke Naturaleko interpretazio zentroraino garamatzan pista hartu behar dugu. Interpretazio zentroko aparkalekuan ibilgailua utzi, ibilbideari oinez ekingo diogu, ibaiaren paraleloan eskuin ertzeko pistatik. Harizti batean zehar egingo dugun ibilbide guztian, ur-jauzi txikiak eta turrustak agertuko zaizkigu, aukera eskainiz atsedena hartzeko eta ibai aldeko paisaiaz gozatzeko. Mila eta ehun metro inguru ibili ondoren zubi batetik ibaia gurutzatuko dugu eta pistan aurrera egin, borda bat eskuinaldean utziz. Gure ezkerraldean ibaiak, lizarrez eta sahatsez osaturiko ibaiertzeko landaredia nabarmenduz, ibai-paisaia ederra eskaintzen digu. Pistatik jarraituko dugu ibai ibilguan aurrera, esker-eskuma haritzez inguratuta. Bi koma zortzi kilometro inguru ibili ondoren pista bitan banatzen da ibaia zubi batetik gurutzatzeko. Zonalde horretan, ibaian gora zein ibaian behera, hainbat ur-jauziz gozatzeko aukera izango dugu. Itzulera pista beretik egingo dugu.

Ibilbidea urteko edozein sasoitan egin daiteke, baina euria egiten duen garaian ur-jauzi ederrez gozatzeko aukera izango dugu.

Deskargatu ibilbidea:

KML

GPX

Ezagutu ibilbide guztiak hemen:

Wikiloc

ura
URAREN EUSKAL AGENTZIA | AGENCIA VASCA DEL AGUA

Baia ibaiko ur-jauziak

URAREN EUSKAL AGENTZIA | AGENCIA VASCA DEL AGUA